

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremanak hainbat modutan sustatuko ditugu:

- Sare-sozialekin: hainbat kontu sortuko ditugu sare sozial ezberdinetan (instagram, twitter, facebook...). Hauen bitartez bezeroenganako konfiantza lortzen saiatuko gara eta bertan gure ideiak eta proposamenak azalduko ditugu.



- Hitzaldiekin: hitzaldiak antolatuko ditugu gure zerbitzua ezagutzera emateko. Adinen arabera antolatuko ditugu, helduentzat (zaharren egoitzetan), umeentzat (eskoletan), gazteentzat (gaztelekuetan) eta gainerakoentzat (udaletxetan).



- Ate irekiak: museoaren inaugurazioa baino lehen eta gero urtean behin antolatuko ditugu ate irekiak. Gure bezeroak izan daitezkeenengana iritsi eta jendeak guk eskaintzen dugun zerbitzua ikus dezan.